

Gure lehendabiziko hitzak, kandelak eskuan hartuta martxa hau itzaropenez zabaldu duten euskal preso eta errefuxiatuen senideentzat dira. Sufritzen ari zareten eskubide urraketan aurrean gure elkartasunik sentikorrena, gure errekonozimendua eta animo guztiak eskaini nahi dizkizuegu. Eskerrik asko, zinez, ematen diguzuen etsenpluagatik. Herri honek ez du sekula ahaztuko egunen joan etorrian erakusten ari zareten duintasuna. Gu guztiontzat ohore bat da zuen aldamenean ibiltzea, pausuak zuekin batera ematea. Maite zaituztegu.

Nuestras primeras palabras son para los familiares de presos y refugiados políticos que han abierto esta marcha con velas de esperanza. Desde aquí queremos trasladaros nuestra solidaridad, nuestro reconocimiento y nuestro ánimo ante la situación de vulneración de derechos que seguís sufriendo. Gracias por vuestro ejemplo. Euskal Herria nunca olvidará la dignidad que un día sí y otro también estáis demostrando. Es para todas y todos nosotros un orgullo marchar a vuestro lado. Os queremos.

Nos premières pensées sont pour les familles des prisonniers et réfugiés politiques basques qui ont ouvert cette marche, bougies de l'espoir à la main. Recevez notre solidarité, notre reconnaissance et nos encouragements devant les violations de droits dont vous souffrez quotidiennement. Merci de tout cœur pour l'exemple que vous donnez. Grâce à vous, Euskal Herria n'oubliera jamais la dignité dont vous faites preuve au jour le jour. C'est pour nous toutes et tous un immense honneur de marcher à vos côtés. Nous vous aimons.

Gure eskerrik beroenak, halaber, giza eskubideak defendatu eta elkartasuna adierazteko manifestazio erraldoi honetan bat egin duzuen pertsona guztiei. Beste behin ere, bakea eta elkarbizitza eskuratu dezan, irmoki aurrera doala erakutsi du herri honek, era kolosalean erakutsi ere. Bakeak eta elkarbizitzak, preso eta errefuxiatu politikoen eskubideak errespetatzea eskatzen duelako. Bakean eta askatasunean bizi nahi dugu, eta ez gaude prest eskubide urraketa gehiago onartzeko. Preso dauden pertsonen bizitzak helburu partidistekin erabiltzeko aldiak bukatu egin behar du, eta bukatu egingo da.

Denon artean Euskal Herrirako garai berri bat ari gara eraikitzen. Oinarri sendoak izango dituen bakea osatzeko aukera historikoa dugu esku artean: biktima guztientzako justizia, aitortza eta erreparazioa eskatzen duena; bai eta giza eskubide eta eskubide kolektibo guztien errespetua ere, pertsona guztientzat eta une oro. Zentzu horretan, Aieteko adierazpena aro berri honen erakusbide argia da.

Entre todos y todas estamos construyendo un nuevo tiempo para Euskal Herria. Tenemos una oportunidad histórica de alcanzar una paz sobre bases sólidas: de justicia; de reconocimiento y reparación a las víctimas, a todas las víctimas del conflicto; y de respeto a todos los derechos, individuales y colectivos, para todas las personas y en todo momento. En este sentido, el Acuerdo de Aiete es un claro ejemplo de este nuevo tiempo.

Entre tous et toutes, nous sommes en train de construire un nouvel avenir pour le Pays Basque. Nous avons une opportunité historique d'obtenir la paix sur de solides bases : de justice ; de reconnaissance et de réparation aux victimes, à toutes les victimes du conflit ; de respect de tous les droits individuels et collectifs, pour tout citoyen et à tout moment. En ce sens, l'accord d'Aiete est un exemple clair de ce nouvel avenir.

Neurri mingarri eta krudelez beteriko kartzela politikak indarrean jarraitzen du, muturreko egoerak eta preso zein senideen oinarrizko eskubideen etengabeko galera eraginez. Espainiako eta Frantziako gobernuek beren-beregi eraikitako amaraun legal hau ez dago justizian oinarritua, mendekuan baizik. Euskal gizartearen ordua da, baina baita hizki larriz idatzitako politikarena ere,

arduraz jokatuko duten politikareina. Honakoa, kartzeletako giltzak itsaso sakonera bota dituztela harrokeriz aldarrikatzen duten politikari horiei egiten diegu exigentzia bat da: utz diezaiotela euskal presoek bizitzekin jolasteari! Utz diezaiotela herritarrok bakea, justizia eta askatasuna eskuratzeko dugun premiarekin jolasteari!

Alta, Madrileko eta Pariseko gobernuak zera exijitzen diegu... Behingoz eta betirako dispersio politikarekin amaitu dezatela, euskal preso guztiak Euskal Herrira ekarri.

Gaixotasun larriak dituzten presoak aske utz ditzatela. Bizi osorako kartzela zigorra dakarten neurri guztiak indargabetu daitezela: 197/2006 doktrina Espainian, eta bizi osorako zigorra Frantzian.

Askatasun kondizionala eskuratzeko aukera bermatu dadila zigorraren 3/4 eta 2/3 bete dituzten presoentzat.

Azkenik, kartzela politika hau errotik alda dezatela, bakea eta konponbidea eraikitzeke prozesuari egokituz, trantsiziozko justizia bat ahalbidetuz, eta preso zein errefuxiatuen eskubide guztiak errespetatuz.

Exigimos a ambos gobiernos, a Madrid y a París...

Que terminen de una vez y para siempre con la política de dispersión y que trasladen a todas las presas y presos a Euskal Herria.

Que liberen a los presos y presas con enfermedades graves.

Que se deroguen todas las medidas que suponen una cadena perpetua de facto: la doctrina 197/2006 del Tribunal Supremo en el caso del Estado español, y la cadena perpetua en el caso del Estado francés.

Que se garantice el acceso a la libertad condicional a los presos que han cumplido las 2/3 partes o las 3/4 partes de su condena.

Y, por último, que se cambie de raíz la política penitenciaria y que ésta se adapte a un proceso de paz y soluciones basadas en criterios de justicia transicional y de respeto a los derechos de presas y refugiados.

Nous exigeons des gouvernements français et espagnol :

Qu'ils en finissent une bonne fois pour toutes avec la politique de dispersion et qu'ils ramènent tous les prisonniers et prisonnières politiques basques au Pays Basque.

Qu'ils libèrent immédiatement les prisonniers et prisonnières politiques basques gravement malades.

Qu'ils abrogent toutes les mesures qui entraînent de facto la prison à vie : la doctrine 197/2006 du Tribunal Suprême dans le cas de l'Espagne, et la condamnation à la prison à perpétuité pour ce qui est de la France.

Qu'ils garantissent l'attribution de la liberté conditionnelle à tous les prisonniers et prisonnières qui ont accompli les 2/3 ou le 3/4 de leur condamnation.

Pour finir, qu'ils changent totalement la politique pénitentiaire, qu'elle soit adaptée à ces temps de construction de la paix et de résolution du conflit, en la basant sur des solutions de justice transitionnelle et sur le respect des droits des prisonniers et prisonnières, et réfugié(e)s politiques basques.

Espainiako eta Frantziako gobernuek pausuak eman behar dituzte. Herri honek hori eskatzen die, berehala eman ditzatela! Krudelkeria beti izan da kolkeriaren helduleku. Izan zaitezte ausartak! Behingoagatik jar zaitezte egoerak eskatzen duen mailan!

Gaurko eguna oso garrantzitsua izan da. Gizarte gehiengoaren ahalegin eta konpromisoak ekarri gaitu hona, berriro ere kolosala izan den martxa honetara. Bihartik aurrera, preso eta errefuxiatuen eskubideen aldeko lanak jarraipena du gure auzoetan, lantegi, eskola eta herrietan. Bidea egiten jarraitzera animatu nahi zaituztegu, preso edo deserrian direnen eskubideen exigentzian irmo jarraitzera, milimetro bat atzera egin gabe. Borondateak gehituz. Pertseberantziatz. Buru eta bihotzez.

Mila esker zuen elkartasunagatik. Bide luzea eta lan handia dugu aurretik, baina merezi izango du, azkenean lortuko baitugu!

Muchas gracias por vuestra solidaridad. La lucha será larga, pero lo vamos a conseguir. Lortuko dugu!

Merci beaucoup pour votre solidarité. La lutte sera longue et difficile, mais nous la gagnerons. Nous réussirons !